

A25 pasatu da eta zaharrak berri

Beste urtebetez, indarkeria matxistaren aurkako egunean mobilizazio eta ekintza ugari egin ditugu Euskal Herri osoan, eta badirudi efemeride horrek jendearen kontzientzia lasaitzeko balio duela. Kalera eraman genituen faxismoaren eta matxismoaren kontrako aldarriak zenbaitek, gizarte kapitalistaren zapalkuntzak salatzekeko urjentzia ulertuz.

Gabonak datoz segituan, festa-giroa eta ospakizunak, eta erasoak gertatzeko abagune ezinhobea. Urtea ez da amaitu eta 6 erailketa matxista izan ditugu Euskal Herrian. Dena den, ez daukagu abendu amaierara joan beharrik egoera zein larria den ikusteko: Itsasondoren bortxaketa-saiakera baten berri izan dugu, Lazkaon eraso homofobo batena, eta datozen egunotan adi eta prest egon beharko dugu.

Hori guztia jakinda, ordezkari instituzionalengan babesa bila genezake, baina A25aren inguruko kontzientziazio kanpaina nola joan den ikusita, jai daukagu. Indarkeria matxista gaitzesten dutela aldarrikatu bazuten ere egunean bertan, trabak besterik ez dizkigute jarri bidean. Beasaingo Udalak indarkeria matxistaren aurkako propaganda egiteagatik isuna jarri dio Itaiako kide bati, eta Ormaiztegiako Udalak azaroaren 25eko mobilizazioetara dei eginez jarritako propaganda guztia kendu digu. Ez da esaten dugun lehen aldia; eskubide politikoak urratzea da hori, argi eta garbi, eta etengabe gertatzen da. Ideologia faxista eta ultraeskuina matxismoa normalizatzen ari badira, nola ez ditugu horien aurkako mezuak kalean zabalduko, bada? Bai Beasaingo, bai Ormaiztegiako udala indarkeria matxistaren aurka badaude, nola uler daiteke egunerokoan horren aurka antolatzen garenon lana era horretan oztopatzen ibiltzea? Ezin al dugu guk geuk, emakume langileok, espazio publikoa erabili salaketak egiteko?

Goierriko Itaian garbi daukagu matxismoaren aurkako kontzientzia hedatzeak, gaur gaurkoz, zenbaterainoko garrantzia duen, eta urte osoan arituko gara lanean horretan, dudarik gabe. Oztopoak oztopo, guk buru-belarri jarraituko dugu eta dei egin nahi dizuegu matxismoaren aurkako asanbladetan zuen amorrua antolatzen. Matxismoa ukatzen duten horien, indarkeria matxista normalizatzen duten ideia faxisten eta erasotzaileen inpunitatearen aurka, emakumeok lehen lerroan egongo gara! Batu asanbladetara!